

**TRATU EZBERDINAK, DENA ONAK****2. Adi, adi!**<sup>2</sup>

Entzute aktiboa entzutea baino askoz gehiago da. Entzute aktiboa **adi entzutea da, aditzea da**. Entzute aktiboa solaskidea esaten ari dena bene-benetan, arretaz, adi entzutea da, esaten ari den horri buruzko interesa agertzea. Hala, entzute aktiboa martxan jarrita, solaskide dugun hori eroso, lasai sentituko da, eta esaten ari zaiguna interesatzen zaigula sentituko du.

Jarduera hau egin baino lehen, komenigarria da  ariketa bat egitea, giro lasaia egon dadin eta ikasleek horrelako ariketak egiten ohitura har dezaten.

**HELBURUAK**

- Entzuten ari den pertsonaren jarrerari erreparatzea.
- Komunikatzaile ona izatearen eta ongi komunikatzen jakitearen garrantziaz jabetzea.
- Komunikatzen ari garenean entzulea kontuan izatea zeinen garrantzitsua den sentitzea.

**GARAPENA**

Ikasleak **bi taldetan** banatuko dira. Talde bakoitza gelaren alde banatan jarriko da, elkarrengandik ez oso gertu.

Ondoren, irakasleak talde horietako bakoitzari irudi batzuk erakutsiko dizkie; “Irudiak” eranskinean daudenak izan daitezke. Talde bakoitzari irudi desberdinak erakutsiko dizkio. Ikasleek irudi bana aukeratuko dute, eta ondo-ondo pentsatuko dute irudiaren deskribapena nola egingo luketen. Izan ere, gero beste taldeko norbaitekin elkartu eta aukeratutako marrazkia deskribatu beharko diote.

Beraz, irudi bat aukeratu, eta horren deskribapena nola egingo luketen pentsatzea izango litzateke lehen lana.

Ikasleak **binaka** jarriko dira. Horretarako, hasieran egin ditugun bi taldeetako kideak elkartuko ditugu, eta halaxe sortuko dira bikoteak.

Bikoteak eserita eta elkarri begira jarriko dira. Horietako bat arbelari begira eseriko da; bestea, berriz, arbelari bizkarra emanez. Arbelari begira dauden guztiak lehen talde berean egondakoak izango dira, eta, jakina, arbelari bizkarra emanda daudenak ere bai. Arbelari begira daudenek arbelean bertan izango dute lehen aukeratu duten marrazkia. Arbelari begira daudenek aukeratu duten irudia deskribatu beharko diete bikotekideei, eta horiek, ostera, deskribatu dietenaren arabera marrazkia egin beharko dute.

Beraz, entzuten ari denak adi-adi entzun beharko dio bikotekideari (galderarik-eta ezin baita egin!), begietara begiratu, buruarekin ulertzen ari den ala ez adieraziz, adostasuna adieraziz...

<sup>2</sup> AAVV (2008). Adimen emozionala. DBH 1. zikloa (12-14 urte). Donostia: Gipuzkoako Foru Aldundia. Berrikuntzako eta Jakinaren Gizarteko Departamentua (Egokituta)

Deskribapen-lanean ari denak irudia osorik deskribatzen duenean (orduak bakarrik) besteak marrazkia egingo du.

Deskribapena egiten ari den kideak pertsonaia horrek adierazten duen emozioa ere deskribatzea garrantzitsua izango da.

Ondoren, rolak aldatuko dituzte eta lehen marrazkia deskribatu dutenek marrazkia egingo dute, eta alderantziz. Hori egiteko, irakasleak beste irudi bat emango die.

Bukatzeko, marraztu duten hori originalarekin alderatuko dute. Bi marrazkiak kontrastatu eta gero, galdera hauei erantzun beharko diete:

- Alde handia al dago bi marrazkien artean?
- Nola sentitu zarete hizketan deskribapen lanean aritu zareten bitartean?
- Zuen solaskideak jarri al du martxan entzute aktiboa? Zertan antzeman duzue hori?
- Horrela sentitu zara noizbait lagun batek bere arazoa kontatu dizunean?
- Eta zuk berari kontatu diozunean?
- Zergatik da lagungarria lagunei entzutea?

**Talde handian**, kontuan izanik helburua zela ondo egoteko esperientziak partekatzea eta askotarikoak gairela eta ondo egoteko gauza berdintsuak behar ditugula agerian uztea, ikasleekin saioaren balorazio txiki bat egingo da:

- Zer egin dugu ondo?
- Zer hobetu behar dugu?

**Irakasleak jasoko du ikasleek esaten dutena eta hurrengo saioan gogoraraziko die.**

## DENBORA

Saio bat

## BALIABIDEAK

- Eranskina: "Irudiak"